

2020KO UZTAILAREN 27ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeiko uztailaren hogeita zazpian.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Jule Aranburu Mariezkurrena.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Aitor de Astobiza Uriarte.
Miren Arantza Oiarbide Perez.
Iñaki Zabalo Echezarreta

EZ BERTARATUTAKOAK:

IDAZKARIA:

Idoia Arévalo Benito.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

HAMAIERA ORDUA: Arratsaldeko

GAI ZERRENDA

- **Aurreko bilkuretako akten onarpena, hala badagokio: 2020ko maiatzaren 11ko Ohiko Bilkurako akta, 2020ko ekainaren 6ko Ez-Ohiko Bilkurari dagokion Akta eta 2020ko uztailaren 9ko Ez-Ohiko Bilkurari dagokion Akta.**

Idazpuruan aipatu hiru akta hauek aurkezten dira Bilkura honetara onarpenerako.

Hiru aktak bozkatu ondoren, aho-batez onartuak geratzen dira.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Joan zen batzorde informatzailean, udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zitzaien:

- 5/2020 alkatetza ebazpena: Idiarte eraikineko lursailetan itxitura egiek eta urak jasotzeko obra baimena ematea.
- 6/2020 alkatetza ebazpena: Gerriko 6an kokatutako etxebizitzako teilatua konpontzeko baimena ematea.
- 7/2020 alkatetza ebazpena: Ugarte baserrira doan bidea konpontzeko obra kontratu txikia.
- 8/2020 alkatetza ebazpena: Urbizuaran baserrira doan bidea konpontzeko obra kontratu txikia.
- 9/2020 alkatetza ebazpena: Agerre baserrira doan bidea konpontzeko obra kontratu txikia.
- 10/2020 alkatetza ebazpena: Udalerriko arratoiaren kontrako zerbitzu kontratu txikia.
- 11/2020: Olabide E.Z.-k Eguzkitza baserriko lursailetan belardia egonkortu eta mekanizagarri bihurtzeko egindako kontsultari erantzuna.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira.

- **Errotatzoko erreformaren bigarren faseko lizitazio espedientea onartzea, prozedurari hasera ematea eta hau arautuko duten proiektua zein baldintza administratiboen agiriak onartzea.**

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Idazpuruan aipatutako kontratuari dagozkion pleguak baita exekuzio proiektua aztertu ondoren, gaia bozkatzen da honako erabaki hauek hartzen dituztelarik udal-kideek aho-batez:

LEHENENGOA: Errotatzoko erreformaren bigarren fasea egiteko exekuzio proiektua onartzea.

BIGARRENA: Lizitazio prozedura arautuko duten baldintza administratiboen plegua onartzea.

HIRUGARRENA: Aurrean aipatutako proiektuari dagokion espedientea eta gastua onartzea, lizitazio prozedurari hasiera emanez.

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Ondoren adierazitako faktura hauek aho-batez onartuak izan dira:

1	Tapia instalazio elektrikoak	3.983,32 euro
2	Hitzaro euskara elkarte	3.889,19 euro
3	Hitzaro euskara elkarte	3.075,14 euro
4	Excavaciones Artetxe	14.316,72 euro
5	Excavaciones Artetxe	7.158,36 euro

GALDE-ERREGUAK

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko zazpi t'erdia direnean.